

Tom Kublin Balenciagarentzat

Ezohiko lankidetza

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

B

2022.06.10—10.16

Tom Kublin Balenciagarentzat. Ezohiko lankidetza

Katinka Balenciagaren kapelarekin. *Harper's Bazaar*, 1965eko ekaina



Tom Kublinek ibilbide profesional labur baina bizi-bizia egin zuen moda-argazkilaritzaren eremuan. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Sobietar Batasunak Hungaria bere sorterrria inbaditzeak sortu zuen ziurgabetasunak akuilatuta, Zürichera emigratu zuen, eta han argazkilaritza-estudio bat ireki zuen. Historikoki, suitzar hiri horrek lotura izan du ehungintzarekin, eta, hala, Kublin harremanetan jarri zen Abraham zeta-enpresarekin. Bi hamarkadaz haientzat lan egin zuen. Abraham Parisko goi-joskintzaren hornitzailea zen, eta, harekiko loturari esker, Cristóbal Balenciaga ezagutu zuen 1950eko hamarkadaren erdian.

Urte haietan, argazkilaritzaren artea hasia zen moda beste ikuspegi eta esparru batzuetatik erakusten; zenbaitetan, aldizkarietako orrialdeetan moda sortzeko artearen, hau da, haren berritze-ahalmenaren eta teknikaren protagonismoa lausotuz. Testuinguru hartan, Tom Kublinek Balenciagaren diseinuen argazkiak egin zituen modari buruzko zenbait aldizkari ospetsurentzat. Haietan, desitxurutzerik gabe erakusten ziren jostunaren gustua eta trebetasuna.

Gainera, Balenciaga etxeak, Parisko goi-mailako jantzigintzaren sektorean ohikoa zen legez, bildumen diseinuak argazkiekin dokumentatzen zituen, haien copyrighta babesteko. Tom Kublinek egin zituen halako argazkiak ere, jostunaren eskariz. 1960ko hamarkadaren hasieratik aurrera, dokumentaziorako, argazkiez gainera, Balenciagaren bildumak filmatzen ere hasi ziren. Praktika horri esker, filmatze-teknika hobetu zuen, eta Balenciagaren moda islatzeko moduarekin esperimendu ahal izan zuen, mugimenduan, pantailaren bitartez. Zendu zenean, bere ondarean zegoen Balenciagaren *Le Dix* perfumearen iragarkiaren grabaketa..

Cristóbal Balenciaga Museoak *Tom Kublin Balenciagarentzat. Ezohiko lankidetzak* aurkeztu du, Cristóbal Balenciagaren (Getaria, 1895–Valentzia, 1972) eta Tom Kublin argazkilariaren (Zalaszentgrot, 1924–Locarno, 1966) arteko harreman profesionala sakontzen eta balioesten duen erakusketa.

ERAKUSKETA

100 argazkik baino gehiagok eta 5 film-zatik osaturiko erakusketa honetan, ikusgai dago Kublinek ikuspegi horietatik guztietatik Balenciagari buruz egin zuen ekoizpen zabalaren erakusgarri den hautaketa bat. Abraham etxeko zetekin egindako diseinuen argazkiak daude, suitzar etxearen eskariz eginak, bai eta *Harper's Bazaar*, *Jardin des Modes* eta *Town&Country* aldizkariak argitaratu zituzten argazki artistikoak ere, eta Balenciaga etxearentzat egin zituen barneko lanak ere bai. Era berean, lehen aldiz erakutsiko dira argitaratu gabeko zenbait argazki ere; argazkilariaren alaba Maria Kublinen bildumakoak dira.

Erakusketa Ana Baldak eta Maria Kublinek komisariatatu dute, eta Parisko Archives Balenciagaren, Suitzako Museo Nazionalaren eta Züricheko Diseinuaren Museoaren laguntza izan du. Erakusketaren bidez, Cristóbal Balenciaga Museoak agerian jarri du Tom Kublinek Balenciagarentzat bai xede dokumentalekin nahiz artistikoekin egin zuen lanaren garrantzia, eta, era berean, haren argazkiek eta filmek izan zuten munta Balenciaga markaren irudia eratzean.

Balenciaga. 1958



ZÜRICH ETA PARIS

Tom Kublinek Bigarren Mundu Gerraren ondoren hasi zuen modako argazkilaria ibilbidea, Zürichen, luxuzko ehunen ekoizpenaren testuinguruan, zeinak hornitzen baitzuen Frantziako goi-mailako jantzigintza. Zürichen zabaldu zuen Kublinek lehenengo estudioa, eta Parisen bigarrena, 1951. urtean. Kublinen ekoizpenean aipagarriak dira Balenciagaren sorkuntza-lanen argazkiak. Areto honetako argazkietan, jostunak Abraham etxeko suitzar zetaz egindako diseinuak ikusten dira. Argazki horiek ehun-etxeak agindu zizkion Kublini, Parisko goi-jantzigintzari egindako ekarpenaren erakusgarri izan zitezten.

Bestalde, 1956. urteaz geroztik eredu ohiz kanpokoari jarraitu zioten prentsako argazkiak erakusten dira. Garai hartan, modako aldizkariak hautatu ohi zuten bildumetako zer modelo argitaratu nahi zituzten eta zer argazkilarik egingo zizkien argazkiak; Balenciagak, ordea, publizitatu nahi zituen diseinuen argazkiak bidaltzen zituen prentsara, kasu bereziren batean izan ezik. Tom Kublinek izan zuen argazki haiek egiteko ardura.

Balenciagaren diseinua Abrahamen zetaz egina. 1961



© Archives Balenciaga, Paris



Balenciaga. 1958

BALENCIAGA DOKUMENTATZEN

XX. mende hasieran, jostunak kezkatzen hasita zeuden modan zegoen pirateriarekin, baina arazoa areagotu egin zen mende horren erdialdean, batez ere Estatu Batuetan, eta Balenciagari oso modu larrian eragiten zion horrek. Copyright eskubideak babesteko helburuarekin, jostunak bere diseinuen argazkiak gordetzen zituen, dokumentatzeko helburuarekin. Tom Kublinek Balenciagaren bildumen argazki horiek egin zituen 1955. urteaz geroztik. Argazki horietan, modeloak aurrez aurre, bizkarrez eta, zenbaitean, albotik ikusten dira, diseinuaren zenbakia daramatela eskuan. Era horretara, jasota geratzen ziren sorkuntza-lan bakoitzaren xehetasunak, eta, beharrezkoa izanez gero, egilea Balenciaga zela egiaztatu zitekeen.

Argazki horiez gainera, Balenciagak prentsara bidali nahi zituen modeloen argazki artistikoak egiten zituen Kublinek. Erreproduzitzeko baimenarekin saldu eta luxuzko hainbat dendatan salduko zituzten diseinuen argazkiak izaten ziren, oro har. Baimenen erosleak sustatzeko modua zen, baina baita modelo eksklusiboek pirateriatik babestekoa ere.

Balenciagaren diseinua Abrahamen zetaz egina. 1958



Harper's Bazaar. 1963ko abendua



BALENCIAGAREN «FASHION FILMS» DIRELAKOAK EKOIZTEN

Balenciagaren aurkezpenak osorik filmatzen hasi zen Tom Kublin 1960. urtean, dokumentatzeko helburuarekin. Lehenengo filmak zuri-beltzean grabatu zituen, kamera finko zegoela. 1965eko neguko bildumaren ondoren, haiek editatzen hasi zen: sarrera moduko bat egiten zuen kapelen lehenengo planoekin, eta girotzeko musika ere sartzen zuen, nahiz eta Balenciagaren aurkezpenetan ez zen musikarik egoten. Balenciaga etxearantzako azken filmak koloretan izan ziren, eta hainbat modeloren koreografiak sartu zituen sekuentzia berean; horrela, artxiborako dokumentu hutsak izateari utzi zioten eta iragarki-filmen itxura hartzen hasi ziren.

1960ko hamarkadaren erdialdean, larriagotu egin zen goi-mailako jantzigintzaren sektorearen krisia. Balenciaga ere hasia zen krisia nabaritzen eta jadanik hasia zen desfileetan baimen-erosleen galera somatzen; egoera horrek bultzatuta, azken bertsio editatu hauek egiteko eskatu zion Kublini. Era horretara, bere bildumetan erakutsi nahi zuena jasotzen zuen materiala lortu zuen, erosleen eskura jartzeko, haiek Parisera joan beharrik gabe.


1960an, bestalde, modako marken lurrinen eta osagarrien iragarkiak hasi ziren telebistan, eta baita moda-joerei buruzko edukiak zabaltzen zituzten programak ere. Testuinguru horretan egin zuen Tom Kulinek Balenciagaren *Le Dix* lurrinaren iragarkia (areto honetan bertan ikusgai).

Horrez gainera, balio handiko beste dokumentu bat proiektatuko da: Kublinek Cristóbal Balenciaga filmatu zuen 1966eko udako bildumaren aurkezpenaren aurretik, azken ukituak ematen.

Balenciagarentzat egindako filmazioek modako filmen zuzendari gisa hazteko aukera eman zioten Kublini, eta esparru horretako aditu bihurtu zen azkenik. Hil zenean, estatubatuar telebistarako dokumental bat grabatzen ari zen, amaitu gabe gelditu zena, zoritxarrez.

Balenciaga markari buruz iritsi
zaigun irudia, hein handi batean,
Tom Kublinen ekoizpenari zor zaio

Maria Kublin



1924

Martxoaren 4an jaio zen, Zalaszentgrot-en (Hungaria), erdi mailako familia baten baitan.

1937

Hamahiru urte besterik ez zituela, argazkilaria izan nahi zuela esan zien gurasoei. Haiek hasieran ezezkoa eman bazioten ere, hark bereari eutsi zion, eta gurasoek iritziz aldatzea lortu zuen.

1944-45

Hungariar gudarostean jardun zuen argazkilari gisa. Gerra amaitu zenean, sobietar bonbardaketek Budapesten sortutako kalteei argazkiak ateratzeko agindua jaso zuen.

1946

Zürichera aldatu zen, eta argazkilaritza-estudio bat zabaldu zuen han, publizitatean espezializatua. Fath-ek Saint Moritzen egindako desfile batean ezagutu zuen modaren mundua.

1951-52

Beste estudio bat zabaldu zuen Parisen, eta Zürichen Matter abizeneko beste argazkilari batekin elkartu zen. Garai horretan egin zituen lehenengo moda-erreportajeak Matter-Kublin izenarekin, Annabelle eta Textile Suisses aldizkarietan.

1952

Lehenengo argazkiak Hermès etxearen publizitatea egiteko, bakarka.

1953

Gustav Zumsteg ezagutu zuen. Zumsteg Abraham & Cie zeta-konpainiaren Europako zuzendari exekutiboa zen Zürichen. Parisko goi-mailako jantzigintzako etxeak hornitzen zituen ehun-entresa harentzako argazkiak egiten hasi zen Kublin.

1953

Lehenengo argazkiak *Jardin des Modes* aldizkari frantsesarentzat.

1954

Lehenengo erreportajeak *Harper's Bazaar* aldizkariarako. Balenciagaren diseinuen lehenengo argazkiak, britainiar edizioaren iraileko alean argitaratuak.

1954-55

Balenciaga etxearentzako argazkiak egiten hasi zen eta adiskidetasun-harremana hasi zuen jostunarekin. Abangoardiako artisten ordezkari Maeght senar-emazteen taldean sartu ziren Balenciaga, Zumsteg eta Kublin.

1960

Balenciagaren bildumak filmatzen hasi zen.

1962-64

Moritz de Halden kontratatu zuen laguntzaile gisa, zeina izango baitzen zinemagile ezaguna eta Berlinalearen eta Veneziako Mostraren zuzendaria.

1963

Katinka Bleeker ezagutu zuen, bere musa izango zena.

1965

Paolo Barbieri kontratatu zuen laguntzaile gisa. Barbieri modako argazkilari ospetsua izan zen. Modari buruzko dokumental baten proiektuan sartu zen, Ipar Amerikako telebistarako.

1966

Bat-batean hil zen, buruko isuri baten ondorioz, Luzernan, maiatzaren 30ean. Abraham et Cie. eta Balenciaga etxeek haren anaia Jean kontratatu zuten, Tomek bi etxe horietan egiten zuen produkzioarekin jarrai zezan.

Harper's Bazaar. 1964ko Uztaila



Cristóbal Balenciaga Museoak 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen atea. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da —3.500 pieza baino gehiago inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker—, eta hedadura formal eta kronologiko handia du —jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako—; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak XX. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.

© Cristóbal Balenciaga Museoa / Idóia Unzurrunzaga



INFORMAZIOA

Zuriñe Abasolo Izarra
Komunikazio arduraduna

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

